

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

32/2020 Foru Agindua, otsailaren 12koa "Lantziegoko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari" buruzko ingurumen txosten estrategikoa egitea

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren eraginpean dago Lantziegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualaren izapidetzea. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aldaketa puntual horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Lantziegoko Udalak igorria eta Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukari jarraitzen diona, bai eta hirigintza dokumentazioa ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Kontsulten aldia amaitutakoan, Ingurumen Inpaktuari buruzko Txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko otsailaren 6an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/125 espediente).

1. Lantziegoko Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorraren 5. aldaketa puntualaren ezauzgarrien laburpen laburra: Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. HAPOn 5. aldaketa puntualaren ezauzgarrien laburpen laburra:

Lantziegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera (apirilaren 22ko 191/2011 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko), 2. poligonoko 198. partzela lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago, eta baso intereseko eremu babestu (J24) gisa kalifikatuta.


Aldaketa honen helburua da Zerbitzu Azpiegituren Sistema Orokor (H1-03) gisa adierazitako lursaila birkalifikatzea, erabilera publikorako erabiltzeko eta bertan Lantziegoko udalerrirako ur biltegi berri bat eraikitzeko.

Biltegi berria kokatuko den lurzatiak 3.409 m² ditu, nahiz eta aldaketa puntualak 2.731 m²-ko azalera duen A azpilurzatiari bakarrik eragiten dion.



1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Aldaketa puntualaren eremu geografikoa Lantziegoko 2. poligonoko 198. partzelaren A azpipartzelara mugatzen da, izen bereko udalerrriaren barruan, Arabako Errioxa eskualdearen ipar-ekialdean.



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, aukera hauek hartu dira kontuan:

- “0” alternatiba (hautatu gabea): Egungo egoerari eustea eta Lantziegoko HAPOn aldaketa puntuala ez egitea. Ez legoke 2. poligonoko 198. partzela erosi beharrik, ezta birkalifikatu beharrik ere, biltegi berria eraikitzeko. Alternatiba honekin herrian ur hornidura arazoak mantenduko lirateke.

- “1” alternatiba (hautatua): Aukera horrek berekin ekarriko luke biltegi berria eraikitzea lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eta Baso Intereseko Eremu Babestu gisa kalifikatutako lurzati batean. Depositu berriaren kotak (603,09 metro egungo biltegiaren 585,69 metroen aldean) Lantziegoko herrigunea hobeto hornitzeko aukera emango luke, uraren presioa handitzen baita. Gainera, biltegi berriaren edukiera nabarmen handituko litzateke gaur egungoa baino, udalerrriaren hornidura are gehiago ziurtatuz. Lurzatia hornidura linea altutik hurbil egoteak ere justifikatzen du biltegia kokatzeko aukeratutako lekua egokia dela.

- “2” alternatiba (hautatu gabea): Orokorrean, biltegia lehenago aukeratutakoaz bestelako kokapen batean eraikitzeko aukera planteatzen da, 198. partzelaren antzeko altueran, baina natura balio txikiagoa izanik.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko urriaren 8an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Energiaren Euskal Erakundea (EEE)	
Lantziegoko Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/125 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museoen eta Arkeologiaren Zerbitzuak honako hau jasotzen du bere txostenean: “Aldaketa puntual honen xede den lursailean ez dago jasota aztarna edo egitura arkeologikorik dagoenik. Nolanahi ere, erreferentziako lursailean egin daitekeen edozein aurkikuntza arkeologiko berehala jakinarazi beharko da”

- URA - Uraren Agentziak txosten bat prestatu du, eta han zehazten denez, “zure eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, egokitzat joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarritakoarekin bat etorritik”

- Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Arkitetonikoaren Zerbitzuak txostenean jasotzen duenez, eragindako lursailean ez dago elementu azpimarragarririk zehaztuta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuan. Halaber, HAPOn aldaketan neurri zehatzak ezarri beharko direla aurreikusten du, ingurune hurbilean dauden laborantza sistemekin, bankadekin, hormekin, plataformekin eta terrazekin paisaian integratuko dela bermatzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak ondorioztatu du depositu berriaren kokapenak inpaktu larria dakarrela lehentasunezko Batasunaren intereseko 6220* habitataren afekzioan; beraz, neurri hauek hartu behar direla uste du:

- Prebentzio neurriak, aukerak bilatzeko, bai kokapenari dagokionez (Batasunaren intereseko habitatik gabeko kokalekuak planteatuz), bai antolamenduari dagokionez (proposamena mantenduz gero, biltegia hegoaldereneko eremuan kokatzea).

- Konpentsazio neurriak, zero balantzea bermatu ahal izateko, hau da, natura ondarearen galera garbirik ez dagoela bermatzeko. Horretarako, beharrezkoa da azalera bat zehaztea, guxtienez, kaltetutakoaren berdina, eta bertan zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak landatzea.

Era berean, haren iritziz, onartuko den hirigintza dokumentuan honako hauek jaso beharko liriteke: 6220* habitataren azaleraren kuantifikazioa, obren eragina jasango duena; eta inguru-mena lehengoratzeko plan bat, leheneratutako azalerei buruzko datu zehatzekin, 6220* habitataren eragina konpentsatzeko; landareztatzean erabilitako espezieak, metodologia, jarraipen programa eta aurrekontua.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: “Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan.” Era berean, hauxe dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat egin du, eta, bertan, aldaketa puntualaren laburpena egin du: “Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldeko Arlo Planean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Sektoreko Eraginaren Ebaluazio Protokoloaren (SEEP) emaitza kontuan hartuta, aldaketa onartzeak dakarren inpaktua bateragarritzat jotzen da”.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren inguruan egindako txostena helarazi du. Bertan adierazten da ez dagoela dekretu horretan babes araubidea duen txabolarik, etxetxorik, mahasti zaintzarik, terrazatzerik ez landaketa bankurik.

3. HAPOn aldaketa puntualaren ingurumen eraginaren deskribapena

Aldaketa puntualaren eragin nagusietako bat da Lantziegoko udalerrian biltegi berri bat eraikitzea ahalbidetzen duela. Depositu berri horrek inguruko paisaiaren gaineko aldaketa sortuko du. Egia esan, aldaketa puntual honen eremua bat dator, oso-osorik, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren aplikazio eremuarekin. Dekretu horren bidez, monumentu multzoaren, ardoaren eta Arabako Errioxako mahastien kultura paisaiaren kategoria ematen zaio (EHAA 111, 2014-06-13). Hori dela eta, ingurumen dokumentuan eta txosten honetan ingurumena hobetzeko proposatzen diren jarduketek garrantzi handiagoa hartzen dute.

Ildo beretik, paisaiari dagokionez, kontuan hartu behar da ezen, aldaketa puntualaren ondorioz, hormigoizko azpiegitura handi bat sartzan dela labore eta mahastien paisaian, hurbileko garraio azpiegiturak dituena, baina paisaia balio handiko funts eszenikoa duena (Lantziegoko eta Guardiako nukleoak, Kantabriako mendilerroko farailoiarekin batera). Horregatik, paisaiaren gaineko eragin negatiboak minimizatzeko, babes neurri garrantzitsu gisa, aldaketa puntualaren araudian eskatu beharko da baimentzen den depositua zonako material tradizional edo bereizgarriekin eraikitzea, kolorazioari eta testurari dagokienez. Kontua da, ahal den neurrian, biltegia bat etortzea kokatuko den landa ingurunearen berezko ezaugarriekin.

Bestalde, Ingurumen Dokumentuan jasotzen den bezala, biltegi berria eraiki nahi den azpi-partzela osoa lehentasunezko Batasunaren intereseko 6220* habitatak (*Brachypodium retusum* larre xerofiloak) hartzen du; habitat hori babestu beharrekoa da Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentaraua aplikatuz. Habitat honen ezaugarri nagusia adar lastoia da eta, etorkizuneko biltegiak proposatutako ingurunean, ezkaia (*Thymus vulgaris*), aulaga (*Genista scorpius*), jara zuria (*Cistus albidus*) eta eskoboa (*Dorycnium pentaphyllum*) ditu. Espezie horiez gain, aipatzekoak dira koskoja ugari (*Quercus coccifera*) eta karraska ale gazteren bat (*Quercus ilex subsp. rotundifolia*), arrosa ale batzuekin batera.

Biltegia eta hari atxikitako instalazioak eraikitzeak florari zuzenean eragiten dion kalteaz gain (giltzen gela, perimetroko zoladura eta ibilgailuen sarbidea), aldi baterako gainerako okupazioak eta beharrezko zortasunak aipatu behar dira obra etxolak jartzeko, lur pilaketak egiteko eta proiektatutako hornidura sarea berrezarri eta handitzeko. Alde horretatik, aipagarriak dira 1.100 m²-ko zortasun eremua eta 3.900 m² zuhaixka azaleraren aldi baterako okupazioa, titulartasun pribatuko lurzatietan proiektua gauzatzeko obrek eragingo baitiote.

Aurrekoa kontuan hartuta, aldaketa puntualeko hirigintza dokumentuaren araudian adierazi beharko da a posteriori idatziko den eraikuntza proiektuak ingurumen integrazioarako aurrekontu bat jaso beharko duela, eraikuntza lanek benetan eragindako azalerekin bat datorrena. Zehazki, ingurumena lehengoratzeko programa oso bat izan beharko du, ingurunea paisaiara egokitzea eta obrek eragindako eta hasieran landaretza naturalak okupatutako lursailak leheneratzea jasoko duena; gutxi gorabehera 3.500 m²-ko azalera hartuko du.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzatzaileak

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren Azterlanaren 10. atalean, proiektua ingurumenean integratzeko zenbait neurri aipatzen dira. Neurri horiek gerora idatzi beharko dira, Lantziegoko udalerriko HAPOn aldaketa puntuala onartu ondoren. Neurriok, oro har, zuzentzat jotzen dira, eta, beraz, Hirigintza Dokumentuaren atal batean sartu behar dira, ondoren proiektu mailan eska daitezten. Dena dela, pentsatzen da neurri osagarri batzuk ere hartu behar direla, proiektuak eragin ahal dion eremuan ingurumen eragin negatiboak saihesteko edo zuzentzeko, eta ingurumen agirian jasotako neurrietako batzuk berriz definitu behar direla. Hain zuzen:

Neurri horiek guztiak HAPOn Aldaketa Puntualaren Dokumentuan sartzeak, ondoren depositua eraikitzeko proiektuaren mailan hartzeko, eraikuntza proiektu hori ingurumen inpaktua ebaluatzeko prozeduratik salbuetsi ahal izango duela aurreikusten da.

A) Obrak hasi aurretik sustatzaileak abisua emango dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, obren ingurumen jarraipen egokia egin dadin eta baldintza hauetan ezarritakoa betetzen dela egiazta dadin.

B) Obrak hasi aurretik, proposatutako eremuaren barruan igarotzerik ez duten eremuak balizatu beharko dira, landaredia duten eremuetan beharrezkoak ez diren eraginak saihesteko. Adibidez, eraikuntza proiektuak aldi baterako okupazio gisa definitutako 197. lurzatian, lur pilaketak eta obra etxolak haren beheko aldean eta lautadan kokatu beharko dira, ezpondatik aldenduz, landaredi eremu trinkoenei eta zuhaitz ale interesgarrienei kalterik ez egiteko.

C) Ur biltegi berria eta horrek dakartzan instalazio lotuak halako moduan eraikiko dira, non ez diren inguruneke eraikuntza tradizionaletik diskordanteak izango. Horretarako, kriptikoak diren eta erraz integratu ahal diren materialak erabiliko dira. Kanpoko fatxadak kolore kriptiko batez eta mate akaberarekin pintatuko dira, lurretik ez bereizteko.

D) Ingurumena lehengoratzeko programa oso bat egin behar da landaretza naturalez estalita dauden eta eraikuntza lanen eraginpean dauden lursailetan, eta, zehazki, paisaia integratu behar da planteatzen diren fabrika obren ingurunean (biltegi berria, kutxatilak, giltzen etxola, etab.). Landaredia zaharberritzeko eta paisaian integratzeko programa gauzatze mailan garatu beharko da, txosten honetan adierazitako baldintzak jasoz. Programa horrek gutxienez 3.500 m²-ko azalera izango du, eta eraikuntza proiektuarekin batera aurkeztuko da hirigintza dokumentua behin betiko onartu aurretik. Horrez gain, neurketak, planoak eta aipatutako espezieekin egindako landaketetarako aurrekontua jaso beharko ditu. Era berean, programa horrek honako eragiketa hauek jaso beharko ditu obrak uki dezakeen eremu osoan (aldi baterako okupazio eremuak eta zortasunak barne):

a. Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guztiak behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

b. Kalitate oneko landare lur geruza bat ematea, gutxienez 0,3 m-koa, eta ondoren profilatzea.

c. Lurra landu eta harrotzeko eta ondoren xehatzeko lanak egitea, gainazalak ereiteko eta hidroereiteko egoki prestatzeko.

d. Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako, soropil espezie gramineoen eta lekadunen nahastea erabiliko da, erasango den eremuko klimarako eta lurzoru motarako egokia, eta Ingurumen Zuzendaritzak ontzat eman beharrekoa.

e. Landaketak egitea, egindako lanak paisaian txertatzeko.

E) Ingurumena lehengoratzeko eta paisaian integratzeko neurri gehigarri gisa (lehengoratzeko aurreikusitako eremuetan aplikatu beharrekoak) landaketak egitea ere jasoko da ingurumena lehengoratzeko programan. Hauek dira jarduketa eremuetan egin beharreko landaketen ezaugarriak:

a. JHautatutako espezieak: IEAn jasotakoak egokitzat jotzen dira (*Quercus coccifera*, *Q. ilex subsp. ballota*, *Q. ilex subsp. rotundifolia*, *Rosmarinus officinalis*, *Thymus vulgaris*, etab.).

b. Landareak sartu ondoren, zuloa edo zanga beteko da kalitatezko landare lurrezko hondoa erabiliz, behar bezala trinkotutako 20 cm-ko geruzetan, 1/3 hareaz edo legarrez zuzenduta, iragazkortasuna handitzeko, betiere konpostatutako ongarri organikoaren kilo bat emanez.

c. Zuloa kalitatezko lurrekin bete ondoren, 40 cm-ko erradioko eta 10 cm-ko altuerako bizkarra egingo da gainazalean, eta landareko 10 litroko ureztapena egingo da.

d. Landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarrizko babes bat jarriko da, Horsol motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m²-koa, metro bateko zabalera osokoa, lur azpian 20 cm jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko, eta 0,6 m. ikusgai utziz.

e. Sare hidrografikoko erriberako eremuak lehengoratu beharreko zonetan, landaketak eta aldaxken landaketak egingo dira, eraginpean izan daitezkeen zuhaitzak lehengoratzeko.

f. Landaketa garaia: Abendutik otsailera.

F) A-4209 errepidetik eraikuntza proiektuan aldi baterako okupazio gisa adierazitako bidetik sartzen diren obrako ibilgailuek errespetatu egin beharko dute bide horren ezkerrean dagoen karraka artea.

G) Bermatu beharko da zurezko landare estalkian mantentze lanak egingo direla hasierako ezarpenaldian (landaketatik 2 urtera), behin betiko sustraitu eta ezarriko dela ziurtatzeko. Hemen kontuan hartzekoak: Defizit hidrikoa den garaietan ureztatzea, landare hilak ordezteak, zurkaitzak eta oinarriko babesak ordezteak, ongarriztatzea, eraketa inausketak, sasi garbiketak eta abar.

H) Kutxatilik, biltegiak eta giltza etxea kokatzeko proposaturiko lekuetan, landare lurrari dagozkion horizonteak era selektiboan kenduko dira handik, eta ahal dela berehala birbanatuko dira edo, ezin bada, metatu egingo dira aldundi honetako ingurumen organoak baimentzen duen lursailan. Metaketa gehienez 1,5 metro altu izango da eta ebakidura trapezoidaleko masetan egingo da, trinkotzea saihesteko asmoz. Landare lur hori obrak eragindako eta txosten honetako goragoko paragrafoetan deskribatutako gainazalean landaredia eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da.

I) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoia hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimendutara eraman beharko dira. Bide zoruak kentzean aterako diren eraikuntza eta eraipen hondakinak 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira (ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena).

J) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. “Lantziegoko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari” buruzko ingurumen txosten estrategikoa egitea

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 12a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO